



## Izena emateko argibideak

1.1.- Lehiaketan gehienez 2 espezialitateetan eman ahal izango da izena. Nolanahi ere, lehiakide edo talde bera ezin izango da kategoria batera baino gehiagora aurkeztu espezialitate beraren barruan. Hala balitz, espezialitate bakoitzeko izen-emate bat bete beharko luke, 2 modalitateetan parte hartzen duenak 2 izen-emate osatuz.

1.2.- Izen-ematea eta matrikularen ordainketa modu telematikoan baino ez da egingo, Ikasgunearen orrialdean dagoen inprimakia betez.

Hurrengo loturan eskura daiteke inprimakia:

### [IZENA EMATEKO INPRIMIKIA](#)

1.3.- Inprimaki berean, eskatzen diren datu pertsonalak eta erreperioko datuak emateaz gain, honako dokumentu hauek erantsi beharko dira:

- Nortasun-agiriaren, pasaportearen edo familia-liburuaren kopia eskaneatua, lehiakideen jaiotze-data adierazita
- Ikastetxeko matrikulazio-ziurtagiria, 2021-22 ikasturtean matrikulatuta dagoen ikastetxeak sinatua eta zigilatua.

## Inskripzioa betetzeko jarraibideak

- **Atalak atalean** (interpretatu beharreko obrak) ezin da # '^ '\* eta antzeko sinbolorik sartu.
- Obren iraupenak minutu osotan sartu behar dira, segundorik gabe.
- Erantsitako dokumentuak: atal bakoitzean dokumentu bakarra erantsi daiteke. NANaren bi aldeek pdf edo jpg fitxategi berean egon beharko dute.

1.4.- Izena emateko epea 2021eko **URTARRILAREN 10ETIK 30RA** bitartean egongo da zabalik (biak barne).

1.5.- **20€**-ko matrikula ezartzen da **banakako espezialitateetarako** eta **60€** -koa **taldekako espezialitateetarako**.



## Izen-ematearen baieztapena

Izena eman ondoren, antolatzaileek parte-hartzaileek emandako datuak eta dokumentazioa egiaztatuko dituzte. Lehiakide bakoitzak aplikazio berean kontsultatu ahal izango du bere eskaeraren egoera, eta onartu edo baztertu egingo da. Baztertutako eskabideak zuzendu ahal izango dira baztertzeko arrazoiaren arabera (datu okerrak, aurkeztu ez den dokumentazioa, etab.).